

**HIZKUNTZA ESKUBIDEA
BERMATZEKO PROTOKOLOA:
GIZARTE ZIBILAREN AHALDUNTZEA**

Lehenik, eta beste behin, eskerrak eman nahi dizkiot KAR-MEL aldizkariari guretzat horren garrantzitsua izan den proiektuaren berri emateko plaza hau eskaini izanagatik. Eskerrak plaza eskaintzeagatik, baina, noski, Protokoloaren parte izateagatik ere eskerrak. Izan ere, KAR-MEL aldizkaria, Europako ehunetik gora eragile bezalaxe, Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloaren lehen sinatzaile taldeko kidea da.

Hizkuntza-eskubideak eskubide subjektibo gisa aitortzea eztabaida askoren muina izan da. Historikoki bi ikuspegi nagusi izan dira eztabaida horretan; batetik, hizkuntza-eskubideak oinarrizko eskubide gisa sailkatu behar direla aldarrikatu dutenak izan dira. Bestetik, beste batzuek eragingarriagotzat jo dute beste giza eskubide edota oinarrizko eskubideren eduki linguistikoa jorratzea. Hala ere, egia da, batera edo bestera pentsatuta ere, eskubide horien aitortza ia sistematikoki baztertu dela nazioarteko itunetan.

Duela hogeita hiru urte, PEN International erakundeko Itzulpen eta Hizkuntza Eskubideen Batzordean eskubide horiek bilduko zituen deklarazioa idazteko proposamena egin zen. Horrela, 1994aren hasieran horretarako talde antolatzaile bat eratu eta urte horretako irailean Hizkuntza Eskubideen

Deklarazio Unibertsalari (HEDU) buruzko hausnarketari ekin zioten. Ez zen lan makala, ez, baina argi zuten azken emaitza, hizkuntza-eskubideei buruzko mundu mailako konferentzia batean aurkeztuko zuten aipatu dokumentua. Ondorioz, konferentzia antolatzen hasi eta berehala, prozesuaren sustatzailerik Deklarazioa idatz zezatela eskatu zieten hainbat diziplinetako eta eremutako adituei. Prozesuaren amaiera 1996ko ekainean izan zen, Bartzelonako Unibertsitateko Paraninfoan eta, bertan, Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala aurkeztu zuten 61 GKeren, 41 PEN talderen eta mundu osoko 40 adituren babesarekin.

Edukiari dagokionez, Deklarazioa iraultzailea izan zela esan dezakegu. Lehen aldiz hizkuntza-eskubideak diziplinatzat hartu ziren, eta Deklarazioak hizkuntza-eskubideen dimentsio indibiduala eta kolektiboa banaezinak eta interdependenteak direla jaso zuen. Izan ere, hizkuntza-komunitate baten barruan eratzen da, eta komunitate horren barruan pertsonak hizkuntzak modu indibidualean erabiltzen dute. Ondorioz, eskubide indibidualak egikarrituko dira, beti ere, baldin eta hizkuntza-komunitate eta hizkuntza-talde guztien eskubide kolektiboak errespetatzen badira.

Egia da, bai, Deklarazioaren azken helburua Nazio Batuen Erakundearen Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren bete beharreko eranskin bihurtzea zela. Tamalez, ez zuen helburu hori bete. Estatu askok UNESCOren aurrean adierazi zuten hizkuntza-eskubideen dimentsio indibiduala eta kolektiboa biltzen zituen edozein dokumentuk deserosotasunak sortzen zituela, bai eta hizkuntza guztien berdintasuna aldarrikatzen zuen edozerk ere. Estatu asko ez zeuden prest horrelako dokumenturik onartzeko, izan ere, HEDU Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren bete beharreko eranskin bihurtuz gero, haiei egokituko bailitzaieke hori betetzea.

Hogei urte joan dira dokumentu hori onartu zenetik, eta Donostiak 2016an Europako Kultur Hiriburutza izango zuela kontuan hartuta, Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak Donostia 2016 Fundazioari hizkuntza-eskubide horien onarpean eta bermean urrats praktikoa egiteko balioko zuen proiektu bat abian jartzeko aukera eskaini zion. Gainera, oso argi genuen Donostia 2016k Europako benetako aniztasunarekin lotutako ondare bat utzi beharko zuela eta ondare horrek gizarte eragileen ikuspegia jaso beharko zuela.

Kontseilua euskararen normalizazioaren alde lan egiten duten berrogei eragileren eta erakunderen bilgunea izanik, euskararen gizarte eragileen ordezkari ezin egokiagoa zela iruditzen zitzaigun. Gizarte eragileek, alderdi eta ideologiak alde batera utzita, kemen handiz lan egin izan dute hizkuntza gutxiagotuetao hiztun berriak, tresna berriak eta espazio be-



Proiektuaren aurkezpena Donostiako Miramar jauregian, 2015-03-31

riak sortzeko, bai eta aldarrikapenerako ere. Gizarte eragileen ekarpen adostua, beraz, izan zen buruan generabilen ideia, alegia, Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala oinarri hartuta, Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa dokumentua sortzea, Deklarazioak biltzen dituen eskubideak bermatzeko bide-orri praktikoa zehaztuko duena, hain zuzen ere.

Hizkuntza gutxiagotuen berreskurapenaren alde lan egiten duten gizarte eragileak dira, beraz, prozesu honetako motore. Halere, Protokoloak babes eta berme akademikoa ere izan behar zuela uste genuen.

Horrela, prozesu hau bideratzeko Talde Antolatzailea eratu genuen, eta bertan nazioartean ospe eta eskarmentu handia duten sei erakunderi egin genion gonbita parte hartzeko: CIE-MEN, LINGUAPAX, UNPO, ELEN, PEN INTERNATIONAL eta ECMI. Horretaz gain, 2015eko abenduan Batzorde Zientifikoa eratu genuen. Batzorde hori hainbat eremutako adituek osatua dago, hain zuzen ere, Protokoloaren erredakzioan laguntzeko eta gizarte eragileen ekarpenei babes akademikoa emateko. Aipatu Batzordean, esan bezala, Europako adituek parte hartu dute, besteak beste, Elin Jones, Miquel Strubell, Ferran Suay, Jaume Vernet, Conchúr Ó Giollagáin, Ewa Chylinski, Iñigo Urrutia...

Hortaz, proiektuaren muina zera izan da, gizarte eragileen, erakundeen eta adituen arteko prozesu bat zabaltzea hizkuntzen arteko berdintasuna bermatzeari begirako protokolo bat prestatzeko. Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloaren bidez hainbat lan-taldek ikuspegi zientifikoa, akademikoa eta soziala baliatuz, egoera gutxituan dauden hizkuntzen egoerari buelta emateko tresna eraiki nahi izan dugu, bai eta hizkuntza-komunitateen berdintasunean oinarritutako Europa berri bat eraikitzeko orubea sortu ere. Horrexegatik, hain zuzen ere, Protokoloa nazioarteko instituzio eta forotara helaraziko

da hizkuntza-aniztasunarekiko konpromisoa neurtzeko tresna gisa erabil dezaten.

Protokoloa jorratzeko metodologia bera nahiko sinplea izan da, nahiz eta prozesu osoa konplikatu izan den, ahalik eta hizkuntza-komunitate gehienen iritziak jaso nahi genituelako. Batzorde Zientifikoak Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsalak jasotzen dituen zazpi eremuetako (Printzipioak, Administrazio Publikoa, Hezkuntza, Sozioekonomia, Onomasitika, Hedabideak eta teknologia berriak eta Kultura) artikuluen azterketa egin zuen eta bertan aitortzen ziren eskubide guztiak identifikatu zituen. Ondoren, eremu horietako bakoitzak kontuan hartu beharko lituzkeen atal guztiak zehaztu zituen. Horrela, eremukako taulak prestatu zituen.



Batzorde Zientifikoa Andoainen, 2016ko urrian

Lan horretan oinarrituta, hizkuntza gutxituen normalizazioaren alde lan egiten duten hamarnaka eragile sozialek ekarpenak egin zituzten, hain zuzen ere, eskubide horiek bermatzeko hartu beharko liratekeen neurriak eta neurri horiek betetzen direla ebaluatzeko adierazleak proposatuz.

Horixe izan da prozesuaren alderik aberasgarriena. Hogeita hamar hizkuntza baino gehiagoko ehunetik gora eragilek ekarpen zehatzak, neurri zehatzak, proposatu zituzten hizkuntza-eskubideak bermatzeari begira. Zeinek bere egoeratik eta zeinek bere beharretatik, baina helburu bera: egoera gutxituan dauden hizkuntzetako hitzunen eskubideak bermatzeko bide-orria zehaztea.

Kontseiluak ehunka ekarpen jaso zituen eta lehenbiziko orrazketa egin behar izan zuen, hizkuntza-eskubideen eremutik at zeudenak alboratzeko. Izan ere, ekarpen oso interesgarriak jaso arren, horietako batzuk ez zitzaizkion zuzenean lotzen hizkuntza-eskubideen bermeari, eta beraz, alboan utzi behar ziren. Lehen orrazketa egindakoan, Batzorde Zientifikoaren esku utzi genituen ekarpen guztiak eta Batzorde horrek ekarpenen bigarren orrazketa egiteaz gain, ikuspegi akademikoa eman zion dokumentuari. Hori guztia amaitutakoan, 185 neurriko dokumentu bat aurkeztu zitzaigun.

Hartara, Protokoloaren neurriak adostuta, Talde Antolatzaileak dokumentuaren printzipio orokorrak zein ziren zehaztu zituen; alegia, Protokoloa ardazten duten printzipio nagusiak zein ziren definitu zituen. Hamaika dira Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa ardazten duten printzipio orokorrak: Hizkuntza-eskubideak; hizkuntzarengatik bereizkeria; hizkuntzen estatusa: hizkuntzen ofizialtasuna; araubidea; neurri zuzentzaileak; baliabideak; diskriminazio positiboa; unibertsaltasun printzipioa; arnaguneak eta memoria historikoa.

Jarraian agertzen dira Protokoloaren printzipio orokorrak eta horiei lotutako neurriak:

A. HIZKUNTZA-ESKUBIDEAK	
Araututa dago hizkuntza-eskubideak giza eskubideak direla.	1
Edozein hizkuntzatarako hiztunen oinarrizko eskubideei dago-kienez, pertsona orok du interprete baten laguntza jasotzeko eskubidea, epaitegian erabiltzen den hizkuntza ulertzen ez badu edo hizkuntza horretan hitz egiten ez badaki (hizkuntza-komunitateko herritarren eskubideak 29-34. neurrien bi- dez bermatzen dira).	2
Edozein hizkuntzatarako hiztunen oinarrizko eskubideei dago-kienez, atxilotu orori berehala jakinarazten zaio, ulertzen duen hizkuntza batean, zergatik atxilotu duten eta zer lepo- patzen dioten.	3
B. HIZKUNTZAGATIKO DISKRIMINAZIOA	
Legearen arabera hizkuntzagatiko diskriminazioa onartezina da.	4
C. HIZKUNTZAREN ESTATUSA: HIZKUNTZA OFIZIALAK	
Legeak errekonozimendu ofiziala eta estatus ofiziala esleitzen dizkio hizkuntza gutxituari.	5
D. LEGEAK	
Administrazioak lege eta araudiak onartu ditu hizkuntza gu- txituaren estatus ofiziala garatu eta arautzeko.	6
Jarduera oro hizkuntza gutxituan egiteko aukera bermatuta dago.	7
E. NEURRI ZUZENTZAILEAK	
Hizkuntza-komunitatearen hizkuntza gutxituta edo baztertuta badago, Administrazioak neurri zuzentzaile osagarri bereziak hartzen ditu hizkuntza-komunitatearen hizkuntza-eskubideak bermatzeko.	8

F. BALIABIDEAK	
Baliabide materialak, diru-baliabideak eta giza baliabideak bermatuta daude hizkuntza-komunitatearen eskubideak babesteko.	9
G. NEURRI POSITIBOAK	
Hizkuntza gutxituak lehentasuna du hizkuntza ofizial eta nagusiaren aurrean.	10
H. UNIBERTSALTASUN-PRINTZIOA	
Hizkuntzaren ezagutza unibertsalitzatzeko neurriak abian daude, hezkuntzan bereziki.	11
I. ZEHAR-LERROTASUNA	
Zeharkako ikuspegia aplikatzen du Administrazioak bere ekintzetan; erakunde publikoko atal, departamendu eta alor guztietan aplikatzekoak diren neurri eta irizpide orokorrak finkatu eta zehaztu dira, hizkuntza gutxitua jendaurreko hizkuntza eta barne-laneko hizkuntza izan dadin.	12
Hizkuntza-eskubideak babestu eta zehar-lerrotasuna bermatzearen, administrazioak hizkuntza-politikari zuzendaritza politikoan leku zehatza esleitzen dio, gainerako atal guztietan eragin zuzen eta esanguratsua izan dezan.	13
J. HIZKUNTZAREN ARNASGUNEAK	
Hizkuntza gutxitua nagusi den eremuetan, Administrazioak eta Instituzioek errekonozimendu eta lege-babes berezia bermatzen dute.	14
K. MEMORIA HISTORIKOA	
Administrazio publikoak baliabideak eskaintzen ditu gaur egun hizkuntzaren galerari buruzko ezagutza izateko.	15

Printzipio orokorrekin lotutako neurrien ostean, eremuz eremukako neurriak jasotzen ditu Protokoloak. Aldizkari ho-

netan artikuluko guztiak jasotzeak gehiegi luzatzea leharkeenez, eremu bakoitzean neurriak zeren ingurukoak diren edo zein esparruri lotzen zaizkion zerrendatuko dugu:

ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK:

A. ARRETA HIZKUNTZA GUTXITUAN

- HERRITARREK ZERBITZUAK HIZKUNTZAN GUTXITUAN JASOTZEKO DUTEN ESKUBIDEA LEGEZ BABESTUTA DAGO
- HERRITARREI ZERBITZU GUZTIAK HIZKUNTZA GUTXITUAN EMATEN ZAIZKIELA BERMATZEA
- KANPO-KONTRATAZIOA
- LEHENTASUNEZKO EREMUAK: Osasungintza, Justizia eta Polizia

B. KOMUNIKAZIOA

C. HIZKUNTZA GUTXITUA ETA LAN EREMUA

HEZKUNTZA:

A. HEZKUNTZA FORMALA

- HAUR-HEZKUNTZA
- DERRIGORREZKO HEZKUNTZA
- LANBIDE HEZIKETA ETA TREBAKUNTZA
- UNIBERTSITATEA ETA GAINERAKO GOI-HEZKUNTZA
- ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK

B. HEZKUNTZA EZ-FORMALA

AISIALDI ZENTROAK, KIROL-TALDE ETA FEDERAZIOAK

C. IRAKASLEEN ETA HEZITZAILEEN TREBAKUNTZA

D. HELDUEK HIZKUNTZA GUTXITUA IKASTEA

E. CURRICULUMA ETA MATERIALAK

EREMU SOZIOEKONOMIKOA

A. ARAUBIDEA

1. HIZKUNTZA GUTXITUA KONTSUMO HARREMANETAN
2. OSASUNA ETA SEGURTASUNA
3. PRODUKTU ETA ZERBITZUEI BURUZKO INFORMAZIO PUBLIKOA

4. GATAZKAK
 5. EKONOMIAKO FUNTSEZKO SEKTORE ETA ZERBITZUETAKO KONTSUMITZAILEEN ESKUBIDEAK
- B. HIZKUNTZA GUTXITUA LAN-EREMUAN ETA LAN-MERKATUAN**
- C. ENPRESEN GIZARTE-ERANTZUKIZUNA**

ONOMASTIKA

- A. ENTITATE AUTONOMO BAT ONOMASTIKA ESTANDARIZATZEKO**
- B. PERTSONA-IZENAK**
- C. LEKU-IZENAK**

HEDABIDEAK ETA TEKNOLOGIA BERRIAK

- A. HEDABIDEAK ETA TEKNOLOGIA BERRIAK**
- B. OINARRIZKO NEURRIAK**
1. INFORMAZIOA HIZKUNTZA GUTXITUAN JASOTZEKO ESKUBIDEA
 2. JABETZA PUBLIKOKO HEDABIDEAK
 3. JABETZA PRIBATUKO ETA HERRI-EKIMENEN HEDABIDEAK
 4. IKUSGARRITASUNA SUSTATZEKO NEURRIAK
 5. EDUKIA
 6. HEDABIDE BERRIAK
 7. HEDABIDEETAKO PROFESIONALAK
 8. MUGAZ GAINDIKO HARREMANAK
- C. TEKNOLOGIA BERRIAK**

KULTURA:

- A. KULTURA JASOTZEKO ESKUBIDEA**
- B. HIZKUNTZA GUTXITUAN SORTUTAKO KULTURA**
1. SORKUNTZARAKO LAGUNTZA
 2. TRANSMISIOA
 3. IKUSGARRITASUNA
- C. KULTURA UNIBERTSALA HIZKUNTZA GUTXITUAN**

Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloaren proiektua hizkuntza-komunitate gutxiagotuetako eragileekin partekatu izan denean, ikusi da oso beharrezkoa zela gizarte eragileok geure proposamen bateratua mahai gaineratzea, baina, aldi berean, oso argi ikusi da hizkuntza-komunitate bakoitzari dagokiola horren betetze-mailak nolakoa izan behar duen definitzea eta zehaztea.



Protokoloaren aurkezpena, Paul Bilbaoren bitzartzea

Arras desberdinak dira egoera gutxiagotuan dauden hizkuntzen egoera, eta horrexegatik, hain zuzen ere, hizkuntza-komunitateek zeinek bere ibilbide-orria zehaztu behar du, Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa erabilgarria izan dadin.

Izan ere, Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloan jasotako 185 neurriak betetzeak ondorio bat eragingo luke, hizkuntza-komunitate horri Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean aitortutako eskubide guztiak bermatzen zaizkio.

Zalantzarik ez dago hizkuntza baten berreskurapen-prozesua dinamikoa dela, baina arrazoi horrengatik ezinbestekoa da epeak zehaztea, prozesuak denboran amaiera izan behar



Protokoloaren aurkezpena, Euskal Herriko eragileak

duela irudikatzea ezinbestekoa da. Hartara, berreskurapen-prozesuari so gauden honetan, lehen urratsa hizkuntza-komunitateen eskubideak bermatzea da lehen geltokia.

Horrexegatik proiektuaren sustatzaileok Kaiera izeneko liburuxka ere sortu genuen Protokoloarekin batera eta Kaiera honek hizkuntza-komunitatearen esku utziko du epeen denboralizazio hori zehaztea.

Kaiera Protokoloan jasotako neurrien betetze-maila neurtu, aurrera begirako helburuak ezarri eta horien jarraipena egiteko balio duen tresna malgua da. Kaiarak balio du etorkizunerako helburuak jartzeko, bai eta horien jarraipena egiteko ere, eremuka edo lurraldeka. Protokoloaren betetze-maila nola eta zein epetan egin behar den definitzen laguntzeko tresna da Kaiera.

Hortaz, bi dokumentu lortu dugu prozesu hau amaitutakoan; batetik, Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa delako dokumentua, non eskubideak bermatzeko bide-orria zehazten den; bestetik, Kaiera, hizkuntza-komunitate bakoitzak bere bide-orria prestatzeko koadernoak.

AZKEN HITZA: GIZARTE ZIBILA PROTOKOLOAREN MOTORE

Zalantzarik gabe Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloaren ekarpen praktikoaz harago, beste behin azpimarratu nahi dugu gizarte zibiletik eta gizarte zibilak adostutako proposamena izan dela, eta prozesu honen helburu nagusietakoa izan dela hizkuntza-komunitateak prozesu horretan subjektu gisa aurkeztu eta gizarte bera hizkuntza-kudeaketa justuaren bermatzailea izan dadila aldarrikatzea.

Europar hizkuntza-komunitateak antolatatu egin dira zein bere hizkuntzan bizi ahal izateko. Ehunka eragile ari dira eguneroko lanean hizkuntza gutxituen garapena sustatzeko. Ehunka

eragilek ehunka proiektu jarri dute abian hiztun berriak sortzeko, hizkuntza gutxituan bizitzeko espazioak sortzeko, hizkuntza gutxituan bizitzeko tresnak ahalbidetzeko, eta nola, ez, berezko hizkuntza bizitzea oinarritzko eskubidea dela aldarrikatzeko. Protokoloak eragile horien guztien bilgune bihurtu nahi izan du, Europako gizarte zibilak hizkuntza-aniztasunaren garapenerako proposamenen egikaritzan lidergoa har dezan.

Hizkuntzen beharretatik lan egiten duten ehunka eragile horiek, ezelango mendekotasun politiko edo instituzionalik gabekoak, milioika hiztunen bozeramaile dira, eta horixe da Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloaren indargunea.

Indar ikaragarri hori ikusgarria izan zen abenduaren 17an Donostiako Kursaal jauregian Protokoloaren lehen eragile sinatzaileen taldea aurkeztu genuenean. Europako hogeita hamar hizkuntza baino gehiagoko ehundik gora eragilek osatu dute lehen talde hori, eta horiek guztiak bozgorailu bihurtuko dira. Eragile horiek guztiak gizarte ongizatean, bizikidetzan eta bakean oinarritutako Europa berri bat eraikitzeko bozgorailuak izango dira, izango gara. Bagara nor!!!

Donostian, 2017ko urtarrilean
Paul Bilbao Sarria

Euskararen Gizarte Erakundeen KONTSEILUaren idazkari nagusia